

HEREMU LEXIKO ETA EREMU SEMANTIKOA

Hitzak esanahi osoa duten elementu askeak dira. Hala ere, multzokatu egin daitezke, esanahiaren edo esaeraren arabera.

Eremu lexikoa edo **Hitz-familiak** hitz beretik sortutako hitz eratorrien multzoa da.

Lan: langile, asto-lan, lanbide, lanaldi, eskulan, lantoki...

Eremu semantikoak: esanahiagatik erlazionatutako hitzek osatzen dituzte. Beraz, esanahia kontuan hartuta osatzen dira.

Fruituak: laranja, aran, sagar, kiwi, mandarina, anana...

ARIKETAK

1. Multzokatu eremu lexiko bereko hitzak:

loratu – okina - gogagarri – ogi - gozo – gozoki – gozatu -okindegia -

loraldi -lore - loretsu – gozamen – ogibide - lorategi – gozotegi

2. Idatzi hitz honen eremu lexiko bereko ahal dituzun hitzak

Lan:.....

.....

...

3. Idatzi hitz hauen eremu lexiko bereko beste bina hitz:

zahar: _____ , _____

ogi : _____ , _____

itsaso: _____ , _____

oihal: _____ , _____

laino: _____ , _____

paper: _____ , _____

ur: _____ , _____

abere: _____ , _____

su: _____ , _____

eguzki: _____ , _____

4. Osatu taula hau eremu lexiko bereko hitzekin:

BERO	BEROTASUN	BEROTU
------	-----------	--------

		GOZOTU
--	--	--------

	ILUNTASUN	
--	-----------	--

		ASKATU
--	--	--------

5. Identifikatu nola taldekatu diren hitzak, eremu lexikoaren edo eredu semantikoaren arabera (esanahiaren arabera).

lurra – lurperatu – lurralde – lurtar _____

arrosa – bitxilore – krabelin – lili – tulipa _____

herri – herritar – deserri – herrimin _____

auto – kamioi – taxi – metro – autobus _____

(eremu semantikolettra-zopa a)